## DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2025

**(*) No será necesario volver a presentarlo si lo presentaron en la convocatoria del pasado curso**

- (*) **EN CASO DE DIVORCIO, SEPARACIÓN, DISOLUCIÓN DE PAREJA DE HECHO REGISTRADA O SITUACIONES ANÁLOGAS**: Sentencia de divorcio o separación, Convenios Reguladores, Certificado de Convivencia expedido por el ayuntamiento, Justificante de la pensión o pensiones actualizadas, siempre que no haya sido aportado anteriormente, y, si procede, los ingresos del cónyuge o pareja del padre o de la madre.
- (*) **HERMANAS, HERMANOS, HIJAS E HIJOS CON DISCAPACIDAD**: Certificado mediante el que se reconoce el grado de discapacidad.
- (*) **MENORES EN FAMILIAS DE ACOGIDA**: Fotocopia de la Orden Foral de acogida y de las condiciones de acogida acordadas por las correspondientes diputaciones, siempre que no haya sido aportado anteriormente.

- **HERMANO UNIVERSITARIO**: Acreditar la matrícula y, en su caso, contrato de arrendamiento.
- **FAMILIA MONOPARENTAL**: Se deberá presentar el certificado de familia monoparental o en situación de monoparentalidad de acuerdo con el Decreto 232/2025, de 2 de diciembre, por el que se regula el régimen de las familias monoparentales.
  En caso de no disponer de este certificado, con carácter excepcional en esta convocatoria, se aceptará como justificante acreditativo el libro de familia o certificado literal de nacimiento de los hijos/as, el convenio regulador de medidas paterno-filiales o resolución judicial de custodia exclusiva, así como resoluciones judiciales o administrativas de adopción, tutela, acogimiento o guarda con fines de adopción.
- En caso de ser **HUÉRFANO ABSOLUTO** y menor de 25 años, acreditar la situación.
- **ACREDITACIÓN** de todos los ingresos, patrimonio y ayudas de todos los miembros de la unidad convivencial correspondientes al año 2025, siempre que dichos datos no estén recogidos en la declaración del IRPF
- **EN CASO DE DOMICILIO FISCAL FUERA DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DE EUSKADI** deberán aportar además los siguientes documentos referidos al año 2025
  - Copia completa de la declaración-liquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas de aquellos miembros computables que la hayan realizado.
  - otros ingresosCertificados de rentas y, tales como pensiones de la Seguridad Social, o de Renta de Garantía de Ingresos y/o Complemento de Vivienda de Lanbide.
  - Certificados que acrediten los ingresos obtenidos por rendimientos de trabajo (10T), si no se ha hecho la Declaración de IRPF.
  - Familia numerosa: carnet
  - Copia del IBI (Impuesto de Bienes Inmuebles) de todas las propiedades de los miembros de la unidad convivencial.
- **EN CASO DE RESIDIR FUERA DEL DOMICILIO FAMILIAR POR RAZÓN DE ESTUDIOS**: Contrato de arrendamiento o justificante del gasto de residencia.
- **EN CASO DE HABER CURSADO LAS SIGUIENTES ENSEÑANZAS en el 2025-2026 FUERA DE LA CAPV,** justificante de la nota media obtenida el curso anterior 2025-2026. El justificante deberá ser el del último curso realizado en el caso de que en el curso 2025-2026 no haya realizado estudios.
  - Bachillerato.
  - Formación Profesional de Grado Medio y de Grado Superior.
  - Enseñanzas Artísticas Profesionales.
  - Enseñanzas Deportivas.
  - Enseñanzas de idiomas en escuelas oficiales de titularidad de la administración educativa.
- **SITUACIONES DE INDEPENDENCIA**: Certificado de orfandad y justificación de los medios de vida con los que cuenta.
- **Para las AYUDAS PARA PROGRAMAS ESPECÍFICOS PARA ALUMNADO CON ALTA CAPACIDAD, PARA REEDUCACIÓN PEDAGÓGICA Y PARA REEDUCACIÓN DEL LENGUAJE** se deberá adjuntar una memoria suscrita por el centro o reeducador que preste el servicio en la que conste información detallada de las características de mismo, incluyendo número de horas semanales y por curso y especialista que lo presta, así como el coste mensual y total por curso.
- En el caso de **AYUDAS Y SUBSIDIOS DE TRANSPORTE PARA EL ALUMNADO DE NECESIDAD ESPECIFICA DE APOYO EDUCATIVO CONTEMPLADOS EN LAS LETRAS A), B) O C) DEL ARTÍCULO 13.1.,** deberán presentar justificantes del gasto realizado en la utilización de vehículo particular para realizar los desplazamientos entre el centro y el domicilio familiar, siempre que el centro esté situado en el área de influencia correspondiente al domicilio de la persona solicitante, no exista otra alternativa de transporte público o escolar y no se haya recibido ayuda duplicada por el mismo concepto.
  A tal efecto, se justificará mediante la acreditación objetiva del uso del vehículo particular aportando:
  - Certificación del centro educativo sobre la asistencia regular del alumnado.
  - Cálculo del trayecto domicilio de empadronamiento y el centro docente en kilómetros, mediante referencia cartográfica oficial (Geo Euskadi).
- **OTROS:** Copia de cualquier otro documento que considere necesario para la justificación de los ingresos de la unidad convivencial, como liquidaciones de despido, EREs, ayudas y donaciones debidamente registradas, etc

**COMPROBACION DE OFICIO:** ***De acuerdo con la normativa aplicable, el órgano instructor de este procedimiento verificará de oficio en la administración competente los siguientes datos:*** *Servicio Consulta del Nivel de renta (haciendas forales vascas),Servicio de consulta de bienes Inmuebles (haciendas forales vascas), Servicio de catastro Estatal, Servicio de la Agencia Tributaria Estatal, Servicio de Verificación de Datos de Identidad de la Dirección General de la Policía, Servicio de Consulta de Datos de Residencia Legal del Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas, Servicio de consulta de títulos universitarios y no universitarios del Ministerio de Educación, Servicio de consulta de títulos de familia numerosa, Servicio de consulta de Grado y Nivel de Dependencia IMSERSO, Servicio de consulta de estar inscrito en el Registro de Parejas de Hecho, Servicio de consulta de Renta de Garantía de Ingresos (RGI), Servicio de consulta de Prestaciones Sociales Públicas del INSS, Servicio de consulta de Datos del Padrón Histórico. Servicio de consulta de Padrón Unidad Convivencial a fecha concreta (excepto en los municipios de Basauri, Bermeo, Leioa, Ortuella, Mungia y Usansolo).*

**Salvo, que la persona interesada se oponga a ello, de manera motivada https://www.euskadi.eus/rgpd/1010605**

## 2025EKO EKITALDIARI DAGOKION AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

**(*) Aurreko ikasturteko deialdian aurkeztu bazen, ez da berriro aurkeztu behar.**

- **(*) DIBORTZIO, BANANTZEA, ERREGISTRATUTAKO IZATEZKO BIKOTEKIA DESEGITEA EDO ANTZEKO EGOEREN KASUAN**: Dibortzioaren edo banaketaren epaia, hitzarmen arautzaileak, udalak eginiko bizikidetza-ziurtagiria, pentsioen egiaztagiri eguneratuak eta, hala badagokio, aitaren edo amaren ezkontidearen edo bikotekidearen diru-sarrerak, baldin eta aurretik aurkeztu ez bada.
- **(*) DESGAITASUNA DUTEN ANAI-ARREBAK ETA SEME-ALABAK:** Desgaitasun-maila aitortzen duen egiaztagiria.
- **(*) HARRERA-FAMILIETAN DAUDEN ADINGABEAK:** Harrerari buruzko foru-aginduaren fotokopia eta dagokion aldundiak erabakitako harrerako baldintzen fotokopia, baldin eta aurretik aurkeztu ez bada.

- **NEBA-ARREBA UNIBERTSITARIOA:** Matrikulatuta dagoela egiaztatu eta errentamendu-kontratua aurkeztu, hala dagokionean.
- **GURASO BAKARREKO FAMILIA BATEKO KIDE BADA:** Guraso bakarreko familiaren edo guraso bakarreko egoeran dagoen familiaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, abenduaren 2ko 232/2025 Dekretuarekin, guraso bakarreko familien araubidea arautzen duenarekin, bat etorriz.
  Ziurtagiri hori ez badago eskura, deialdi honetan salbuespen gisa, honako hauek onartuko dira egiaztagiri gisa: familia-liburua edo seme-alaben jaiotzari buruzko hitzez hitzeko ziurtagiria, guraso eta seme-alaben arteko neurriak arautzen dituen hitzarmena edo zaintza esklusiboko ebazpen judiziala, bai eta adopzioari, tutoretzari, harrerari edo adopziorako zaintzari buruzko ebazpen judizialak edo administratiboak ere.
- Eskatzailea **ERABATEKO UMEZURTZA** eta 25 urtetik beherakoa denean: Egoera egiaztatzea
- **BIZIKIDETZA-UNITATEKO KIDE GUZTIEK 2024AN IZANDAKO ONDAREA ETA DIRU-SARRERA ETA LAGUNTZA GUZTIAK** EGIAZTATU BEHAR DIRA, baldin eta datu horiek PFEZaren aitorpenean jasota ez badaude.
- **ZERGA EGOITZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOTIK KANPO IZANEZ GERO, 2025**. urteari buruzko agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:
  - Zerga-aitorpena egin duten kide konputagarrien Pertsonen Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpen-likidazioaren fotokopia osoa.
  - Errenten eta beste diru-sarrera batzuen ziurtagiriak, hala nola Gizarte Segurantzaren pentsioen eta Lanbidek kudeatutako diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo/eta etxebizitzarako diru-laguntza osagarriaren ziurtagiriak.
  - Lan-etekinen ziurtagiria (10T), PFEZaren aitorpena egin ez bada.
  - Familia ugaria: txartela.
  - Bizikidetza-unitateko kideen jabetza guztien OHZ Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren kopia.
- **IKASKETAK DIRELA-ETA FAMILIAREN EGOITZATIK KANPO BIZIZ GERO**: Errentamendu-kontratua edo bizileku-gastuaren egiaztagiria.
- **2025-2026an EAEtik kanpoko irakaskuntza hauek egin badira**, 2025-2026 ikasturtean lortutako batez besteko notaren ziurtagiria. 2025-2026 ikasturtean ez badu ikasketarik egin, egiaztagiria egindako azken ikasturtearena izango da.
  - Batxilergoa.
  - Erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketa.
  - Ikasketa artistiko profesionalak.
  - Kirol-ikasketak.
  - Hezkuntza-administrazioaren titulartasuneko eskola ofizialetan egiten diren hizkuntza-irakaskuntzak.
- **INDEPENDENTZIA-EGOERAK**: Umezurtz ziurtagiria eta eskuragarri dituen bizitzeko baliabideen egiaztagiria.
- **GAITASUN HANDIKO IKASLEENTZAKO PROGRAMA ESPEZIFIKOETARAKO, PEDAGOGIA-BERREZIKETARAKO ETA HIZKUNTZA-BERREZIKETARAKO LAGUNTZEN KASUAN**, zerbitzua ematen duen berrezitzaileak edo ikastetxeak sinatutako memoria erantsi beharko da, zerbitzu horren ezaugarriei buruzko informazio zehatza jasoko duena, honako hauek barnean direla: asteko eta ikasturteko ordu-kopurua, zerbitzua ematen duen espezialista eta ikastaroaren hileko eta guztizko kostua. Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko, gehienez ere ikasturteko 10 hilabeteetan sortutako kostua hartuko da kontuan.
- **13.1 ARTIKULUKO A), B) EDO C) LETRETAN JASOTAKO HEZKUNTZA-LAGUNTZAREN BERARIAZKO PREMIA DUTEN IKASLEENTZAKO GARRAIO-LAGUNTZA ETA -SOROSPENEN KASUAN**, ikastetxearen eta familiaren bizilekuaren arteko joan-etorriak egiteko ibilgailu partikularra erabiltzeagatik egindako gastuaren egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte, betiere ikastetxea eskatzailearen etxebizitzari dagokion eragin-eremuan badago, garraio publikorako edo eskola-garraiorako beste aukerarik ez badago eta kontzeptu beragatik laguntza bikoizturik jaso ez bada.
  Hori justifikatzeko, ibilgailu partikularra erabiltzearen egiaztagiri objektibo bat aurkeztu beharko da:
  - Ikastetxearen ziurtagiri bat, ikaslearen ohiko bertaratzeari buruzkoa.
  - Egoitzaren eta ikastetxearen arteko ibilbidearen kilometroak, erreferentzia kartografiko ofizial bitartez (Geo Euskadi).
- **BESTELAKOAK**: Bizikidetza-unitatearen diru-sarrerak justifikatzeko egoki iritzitako beste edozein dokumentu, hala nola, kaleratze-likidazioak, enplegu-erregulazioko espedienteak, behar bezala erregistratutako dohaintzak eta laguntzak, etab.

**OFIZIOZ EGIAZTATZEA:** ***Araudi aplikagarriekin bat etorriz, prozedura honen instrukzio-organoak ofizioz egiaztatuko ditu honako datu hauek administrazio eskudunean:*** *Errenta-mailaren kontsulta-zerbitzua (euskal foru-ogasunak), Ondasun higiezinen kontsulta-zerbitzua (euskal foru-ogasunak), Estatuko Katastro Zerbitzua, Estatuko Zerga Agentziaren Zerbitzua, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren Nortasun Datuak Egiaztatzeko Zerbitzua, Ogasun eta Administrazio Publikoaren Ministerioaren legezko bizilekuari buruzko datuen kontsulta-zerbitzua,Hezkuntza Ministerioaren unibertsitate-tituluak eta unibertsitateaz kanpokoak kontsultatzeko zerbitzua, Familia ugariaren tituluen kontsulta-zerbitzua, desgaitasun-graduaren edo -mailaren kontsulta-zerbitzua (IMSERSO), Izatezko Bikoteen Erregistroko inskripzioak kontsultatzeko zerbitzua, Diru-sarrerak bermatzeko errentaren kontsulta-zerbitzua, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren kontsulta-zerbitzua, Errolda historikoaren datuak kontsultatzeko zerbitzua. Bizikidetza-unitatearen erroldaren kontsulta-zerbitzua data jakin batean (Basauri, Bermeo, Leioa, Ortuella, Mungia eta Usansolo udalerrietan izan ezik).*

**Non eta Interesadunahorren aurka agertzen ez den modu arrazoituan : https://www.euskadi.eus/rgpd/1010605**